

Lazarragaren eskuizkribua: grafiak, hotsak eta hitzak

(The manuscript of Lazarraga: graphemes, sounds and words)

Pagola Petirena, Rosa Miren

Deustuko Unib. Unibertsitateen Etorb., 24. 48007 Bilbo

BIBLID [1137-4454 (2006), 21; 539-561]

Recep.: 05.02.17

Acep.: 05.10.18

XVI. mendeko Joan Perez de Lazarragaren eskuizkribuaren deskripzio orokorra egiten da, egitura nola antolatua dagoen aztertuz eta edukiaren laburpena emanez. Jarraian, grafien sistemaren azterketa egiten da, bokalismo eta kontsonantismo mailan erabiltzen diren grafemak azalduz eta, horrekin batera, maila fonikoan gertatzen diren fenomenoak aztertuz. Lexikoaren azterketa ere, ikuspuntu dialektetik, egiten da. Lexemak, esamoldeak eta hizketan erabili ohi diren klitxeak aztertuz, bizkaierarekin eta beste euskalkietako hizkerekin dituzten parekotasunak erkatuz.

Giltza-Hitzak: Diakronia. Dialektologia. Fonetika. Lexikoa. Grafiak. Hotsak. Lexemak.

Se hace una descripción general del manuscrito del siglo XVI de Joan Perez de Lazarraga, analizando cómo se constituye su estructura y haciendo un resumen de su contenido. A continuación, se analiza el sistema de grafías, exponiendo los grafemas utilizados a nivel de vocalismo y consonantismo y, junto con ella, se analizan los fenómenos que suceden a nivel fónico. También se lleva a cabo un análisis del léxico desde el punto de vista dialectal, examinando los lexemas, expresiones y clichés utilizados en la conversación, comparando las similitudes que tienen con el vizcaíno y con hablas de distintos dialectos.

Palabras Clave: Diacronía. Dialectología. Fonética. Léxico. Grafías. Sonidos. Lexemas.

On fait une description générale du manuscrit du XVI^{ème} siècle de Joan Perez de Lazarraga, en analysant la façon dont est constituée sa structure et en faisant un résumé de son contenu. Ensuite, on analyse le système de graphies, en exposant les graphèmes utilisés au niveau du vocalisme et du consonantisme et on analyse en même temps les phénomènes qui apparaissent au niveau phonique. On réalise également une analyse du lexique d'un point de vue dialectal, en examinant les lexèmes, les expressions et les clichés utilisés dans la conversation. En comparant leurs similitudes avec le bisciaïen et avec les parlers de différents dialectes.

Mots Clés: Diachronie. Dialectologie. Phonétique. Lexique. Graphies. Sons. Lexèmes.

1. SARRERA: EGILEA ETA ESKUIZKRIBUA

Egilea ezagutzea, testu bat hizkuntzaren aldetik aztertu nahi denean, argigarri eta, oro har, lagungarri gerta daiteke. Kasu honetan, zorionez, galdera hori aski ongi erantzuna dagoela eskuizkribuan bertan esan daiteke. Egilearen izena ageri den kasu guzietan, azkeneko bi orrien M^a Estivaliz de Sasiolarena izan ezik, Lazarraga edo Joan Perez de Lazarraga idatziak ageri dira eta horien artean maiz bere anagrama¹. Ez dago hemen Joan Perez de Lazarraga nor zen esan beharrik, ezagutzen diren datuak zabaldu baitira². Hala ere, esan dezagun jaiotze data ez dagoela zehatz jakiterik oraino; bai 1605. urtean hil zela, arabarra zela, Larrea Jauregikoa, hau Araba iparraldean, Gipuzkoako mugan kokatua, Leinz-Gatzaga, Aretxabaleta eta Oñatiko lurralde mugakide dituelarik. Bere jatorria oñatiarra zen eta garaikideen artean “Poeta” gain-izenarekin ere ezaguna omen zen.

Eskuizkribua bera ez dut eskutan izan, baina faksimila edizio elektronikoa ikusiz³ badakigu 51 orri dituela, plegu laurdenean, 1etik 51ra berriki zenbakituak orrien ordena erabilgarriago bat finkatzeko-edo. Testuaren parte nagusiaren letra mota *humanista biribildua* da eta alboetako zenbait poemetakoa *etzana*, gaztelaraz ‘bastarda’ deitzen dena. Eskuizkribuak lehenengo lau orriak hautsiak ditu, eta barruan ere zenbait orriren falta nabari da, jarraian zehaztuko den bezala. XVI. mendekoa da eta Borja Aginagaldek dioenez: “ez dago zalantzarik [...] 1560ko hamarkadan idatzia dela”.

Horiez gain, baditu aspaldi ezarritako beste bi zenbakiketa. Borja Aginagaldek dioenez, bat “15” zenbakiarekin hasi eta “67”an ixten da berriko 49an, Sasiolaren bi orriak kanpoan gelditzen direlarik. Bestea berriko bigarren orrian –hasi, lehenbizikoan hasiko da, baina alderdi hori hautsia duenez, zenbakia ez da ikusten– hasten da “1139” zenbakiarekin, azkena “1203” delarik. Zenbakiketa honek ere Sasiolarenak at uzten ditu.

Eskuizkribuak lehenengo lau orriak hautsiak ditu. Zenbakiketa kontutan hartuz, orri bat falta zaio hasieran. 15.aren jarraian ere bi orri datoz erabat urratuak, azken hauek zenbakiketa berrian kontutan ere hartu ez direnak. Badira beste hutsune batzuk ere: testuaren jarraitasunaren hausketak,

1. Ugariak diren arren aipamenak, hona kasurik adierazgarrienak: “Aquí comienza un tratado [...] compuesto por Laçarraga” (44), euskaraz idatzia; “Historia de la quema de Salvatierra [...] compuesta por Laçarraga” (48), hau ere euskaraz idatzia. Hiru aldiz “El autor” esaten da, hala nola “Loa de las damas y galanes bascongados. El autor” izenburuko poemaren aurrean, edo “un caso que acaeció al autor en un camino con una dama”, edo 31v orrialdean, non ahalpadiaren zenbakiaren bi aldeetan “el autor” hitzak bananduak agertzen diren. “El autor” esateak ere esanguratsua dirudi, ezer indartzekotan, Lazarragaren egiletza indartzen baitu, onartutzat edo ezaguntzat jotzen delako nor den egilea. Gaztelarazko poema gehienetan, (29v), (33v), (37v), (40v), ere izen bera ipintzen da osorik edo anagramaz. Beste bertsotzatzen Lazarragak berak dio honako hau: “neure içenaz nonbraeta nax / Joan Perez de Laçarraga”.

2. Zehaztasunetarako: Borja Aginagalde: “Euskal letren historia aldatuko duen eskuizkribua”; egile beraren “Lazarragaren eskuizkribuaren estraineko datatze-azterketa” eta Pruden Gartzia: “Larrea Burgos baino hobea, Toledoren kidea”, www.erabili.com helbidean.

3. Eskuizkribuaren edizio faksimila: Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako CD-Romean (2004) eta Interneteko www.gipuzkoakultura.net/lazarraga/ helbidean.

1147/1151 eta 1154/1159 zenbaki zaharrek agertzen dituztenak, zenbakiketa berriko 10/11 eta 14/15 orrien artean. Azken honen jarraian, lehen aipaturiko bi orri urratuez gain, falta dira beste batzuk, 1159/1164 zenbaki zaharrek ageri dutenez; eta berriro, 1165/1169 orrien artean ere berdin. Eta, geroxeago, 1174., 1176. eta 1178. zenbakiei zegozkien orriak ere bai. Alderdi hau amaitzeko, azkeneko bi orriak -50 eta 51, Sasiolarenak alegia- geroztikoak direla esan behar da. Hizkuntzaren aldetik ere bestelako azterketa beharko lukete.

Ahalik eta laburren aurkeztuz eskuizkribuaren edukiak, lehenengo esan behar da gehienak euskaraz idatzitako testuak direla, gazteleraz ere badirela-rik zenbait olerki.

Euskaraz, prosazko narrazio batekin hasten da, barnean zenbait olerki dituen. Euskarazko gainerako guziaz bertsoan idatzia dago. Gaztelerazkoek, horiek ere denak olerkiak zirriborro bat izan ezik, bederatzi-hamar bat orrialde hartzen dituzte.

Euskarazkoetara mugatuz, hasierako narrazioak, tarteka hutsune larrixkoak baditu ere, dena jarraian datorrela dirudi. Lehenengo orritik 14.era hartzen du. Ez da ez hasiera ez amaiera ezagutzen, baina, 18 orri-zenbaki zaharren ondoren falta diren lauak kontutan hartuz, goitik jota, 21-22 orritako narrazioa izan zitekeela dirudi. Neurtitzetan idatzitako testuak honako hauek dira:

– Lehenbizi, orrialdeen jarraian datozen olerkiak. Olerki hauek bata bestearen ondoren idatziak daude eta aski garbi erakusten dute, nahiz orrialdean hartzen duten erdiko toki nagusiagatik nahiz letra-mota zainduagatik, egilearen aldeaurretiko asmo baten emaitza direla.

– Beste olerki asko daude, ahapaldi mota desberdinetan idatziak eta orrialde desberdinetan han-hemenka sartuak. Ahapaldiak orrialdeetan geldituriko hutsuneak aprobetxatuz sartu dira, ez beti olerkiaren eta, beraz, orrialdeen jarraitasuna errespetatuz, atzera eta aurrera jauzika baizik. Hauek, besteak idatzita gero sartuak dirudite.

– Azken bi orrietan M^a Estivaliz de Sasiolaren bi poema datoz.

Lan honen helburutarako ez da beharrezkoa ikusten testu nagusiaren alboetan -baita narrazioarenean ere- eta edozein bazter aprobetxagarritan datozen olerkiak sailkatzea, baina ez da kaltegarri ere gertatuko nahas itxuran idatzitako ahapaldi eta olerki horiek badutela nolabaiteko bateratasuna erakusteko, forma hutsaren aldetik gutxienez, edukia ere kontutan hartuz lagungarri gerta daitekeenetan:

– Hiru bertsoetako ahapaldiak asko daude, edukiaren aldetik elkarren artean, kasuren baten izan ezik, lotura bateraturik erakusten ez dutenak, baina egilearen asmoan batasunen bat bazuten, zenbakitu egin dituelako, 1etik 30era (26v-ean ahapaldi bat zenbakitu gabe) 26-28 orrietan, eta 47 edo 51tik 67ra 11-14 orrietan. Azken zati honetan, zuzenduak eta errepikatutako zenbaki pilatxo bat daude: izan ere, orrialde desberdinetan batere orde-

narik gabe sakabanatuak daudenez hirukoak, ez da harritzekoa egilea bera ere nahastea zenbakiak ezartzean. Letra bera ere batzutan zainduagoa dago.

Hirukoekin jarraituz, aurrekoetz gain badira beste batzuk, hauek ere zenbaituak, “M1”, “M2” eta abar “M15”eraino. Edonola ere, ez dago alde nabar-menik haien eta hauen artean.

– Lau bertsotako ahapaldiak ere badira: 15v eta 16v orrialdeetan, hauek ere zenbaituak, baina zenbakia marratxo batez tatxatua dago. Hasieran, dirudienez, bertsoak marra txiki batez eta zenbakiak ezarriz launaka banatuak baleude bezala ageri dira, baina gero zenbakiak kendu egin dira. Honek baluke arrazoizko azalpenik, bertsoak denak jarraian daudelako idatziak, inolako tar-terik gabe, eta puntua ere bera delako bertso bikoiti oro poema osoan, euskal zortziko nagusiaren erara edo gaztelerazko erromantzeenera. Nolanahi ere, hona zenbakiak: 37-45 eta 64-72, hemen “Fin” ageri delarik. Beraz, molde bera eta puntu bakarra dituela kontutan izanik, zenbakiketa ere jarraitua dela eta azkeneko ‘Fin’ hitza, poema bat izan daitekeela dena ondoriozta daiteke. Bestalde, lehenengo zenbakien faltak eta testuaren edukiak ere agertzen dute-nez, 15. orriaren aurrekoetan hasiko zela poema, galdu diren lau orrietakoren batean, alegia, pentsa daiteke; eta hemen ere kontuak eginez, 1etik 36rako ahapaldiek lau orrialde hartuko zituzten, bakoitzean 9 lauko edo 36 bertso, beste orrialde bietan gertatzen denaren arabera. Bestalde, badakigu 15. eta 16. orrien artean beste lau orri falta direla. Gelditzen diren bi puskek horietako birenak izan daitezke: ageri den letrak besteetako bera dela dirudi, puntua ere bera da eta zatiak eskuineko bazterrak dira. Beraz, hemen ere kontuak ateraz, falta diren 18 ahapaldiak –46.etik 63.era– bi puska horietan agertzen direnak izango zirela pentsatzea arrazoizkoa litzateke.

Laukoekin jarraituz, 25-ean lau ahapaldi daude “11-14” zenbakiak tatxa-turik. Hurrengo orrialde bietan poematxo bat dator osorik, 1-etik 9-ra zenba-kitua, eta azken zati osoa 10 zenbakiarekin amaieraraino, lauokak marratxo batez bereizten diren arren. 26v-ean lauko solte bat.

– Bost bertsotako ahapaldiak ongi zehaztuak daude eta ahapaldien pun-tua ere aski konplexua da, ez beti behar bezain ongi lortua, ordea. Zenbakiak ere badituzte. 27r-ean sei ahapaldi ageri dira, hauek zenbakirik gabe, baina, edukiak aditzera ematen duenez, 28r-ean jarraitu egiten dute eta, horrez gain, hauen lehenengo zenbakia “7” da. Poema luzea dirudi, 33 ahapaldikoa⁴, azkenak hiru bertso bakarrik ditu, ahapaldia eta poema bera ere zintzilik gel-ditzen direlarik, eta ez toki faltaz.

– Zortzi eta hamar bertsotako ahapalidun olerkiak ere baditu, ahapaldiak ongi bereizten direlarik eta ia beti zenbakiak ere ezarriak dituztelarik.

– Eta, azkenik, ahapalditan banatzen ez diren poema batzuk ere badira.

4. Bi ahapaldi zenbakirik gabe; hasieran eta gero ezabatuak 21 eta 22 zeuzkatela dirudi, hala ere, zenbaki horiek beste bik dituzte. Azken ahapaldiak, 30 zenbakiaren ondoren, 40 zenbakia du, erratuz, noski.

Testu nagusian dena oso zaindua dago: letra, lerro artzak, marjenak, eta, batez ere, ia ez dago ez erraturik eta ez zuzenketarik, eta hori egiazta-pen erabakigarria izan daiteke aurretik idatzitakoaren kopia dela erakusteko. Beste olerkiei begiratzuz, berriz, ez dira ezaugarri horiek ikusten, hiru bertso-takoetan izan ezik.

Lau bertsoetako letra-motak ez dirudi hiruko gehienetan ageri dena bezalakoa denik. Etzanagoa da, batetik, eta idazkerak berak ere arinago eta laxoago egina, bestetik; eta zuzenketak ere gehiago ditu. Bostekoen letra ere laukoan antzekoa da eta bertso ezabatu eta zuzenduak ere haien antzera ditu. Eta letra-mota horrekin idatziak badira hainbat olerki, esaterako, ustekabeko uzkeraren umorezko poema narratzailea, gai berarekin gazteleraz ere ageri dena eta kasu honetan garbi esaten da nor den egilea: “conpuesto por” eta Lazarragaren anagrama. Egia da gaztelerazkoaren letra oso zaindua dela, baina izenburuan duen letrak, berriz, aipatzen ari garena-ren antz handia du.

Dituzten ezabatu eta zuzenketa ugariagoak kontutan hartuz, agian zuzenean idatziak egon daitezke poema horiek; eta, ondorioetan aurreraxeago eginez, Lazarragaren ohizko letrarik arruntena ez ote zen hori bera izango galde daiteke. Hain zuzen ere, letra-mota horretxekin idatzia dago bere izena poema baten barnean: “neure yçenaz nonbraeta nax / Joan Perez de Laçarraga” (47r)⁵.

Amaitzeko, goian esan den bezala, Lazarragaren egiletzak ongi oinarritua dirudi, baina horrek ez du kentzen galdera ugari sor ez daitekeenik egile-tza horren, testuen orijinaltasunaren eta zenbait testuren iturrien inguruan. Baina, gai horiek beste barnetiko azterketa mota bat eskatzen dute.

Hemen eskaintzen den iruzkina euskarazko narrazio eta olerkietan oinarritu da, Sasiolarenak alde batera utziz esan diren arrazoiengatik. Testuen irakurketa edizio digitaletik egin da, baina interneten eskaintzen den irakurketa ere aprobetxatuz⁶.

Testu denak egile bakar eta berarenak bezala hartu dira. Halere, Sasiolarenaz aparte, 36. orrialdean poema bat ageri da goiti behera bi lerroz tatxatua, baina irakurgarri gelditu dena, ala, hobeki esanda, berariaz irakurgarri utzi dela dirudiena. Honexek sortarazten du zalantzarik handiena, ez ageri duen ezabaketagatik, hori ere lagungarri gerta daitekeelarik, baizik darabilen hizkeraren berezitasun batzuegatik batez ere. Haatik, besteekin batera hartu da poema hau ere, haien antzeko aldeak gehiago dituen ustetan.

5. Izena bera ezabatua dago, baina guztiz irakurgarria gelditu da, eta gainean, aren ordeaz, “amoradua dicha бага” sartua. Azpian, berriz, letra-mota desberdinez –5r-en barrenean ageri den letra bera dela esan daiteke–, berritua “Joan Perez de Lazarraga” idatzia; izen hau ez da ahapaldian sartzen, bertso batez gehitu egingo bailuke.

6. Iñigo Landak egina, www.armiarma.com/klasikoak/lazarraga/ helbidean.

2. GRAFIA ETA FONETIKA

Eskuizkribuan jarraitzen den ortografia-sistema aski tinkoa da, eta deigarri ere gertatzen da duen erregularitasuna; nolabait esateko, hain 'arautua' eta grafietan hain aldaketa gutxirekin aurkitzea, batez ere erromantzez idatzia dagoenarekin erkatuz gero, haren sistema grafikoa badarabil ere. Garaiko beste euskal idazleengan bezalaxe, hemen ere zenbait grafia alografo hutsak dira, erromantzetik zuzenean eta egokitze saiorik gabe euskarara eraldatuak. Beste batzutan, berriz, fonema bera adierazteko grafo eta digrafo desberdinak darabiltza eta, alderantziz ere bai, grafo bera, edo digrafoa, fonema desberdinak adierazteko. Dena dela, analisi fonikoan grafiaz baliatzea ez da beti egiteko erraza, elkarren arteko baliokidetza ez delako mugiezina, eta hemen egiten den analisisian ere grafia eta hotsen artean dauden harremanak, kasu askotan, ezinbestez etimologian oinarrituz aztertu behar dira. Bestalde, garaiko idazkeran ohizkoa zen bezala, laburdura paleografikoak ere erabiltzen dira; puntuaketarik ez, orde; maiuskulak eta minuskulak batere arauketarik gabe; eta, batez ere eskuizkribuaren hasieran, hitz lau idatzirikoan, hain zuzen, hitz guztiak bata bestearengandik puntu batez banatzen dira. Bestalde, partizipioa eta aditz laguntzailea batuak idazteko joera idazleengan oro har hainbeste iraun duena, hemen ere nagusiki ageri da.

2.1. Bokalismoa

Bokalismo mailan, /i/ hotsa adierazteko <y> eta <i> alografo biak erabiltzen dira edozein posiziotan, hasierakoan ia beti -txandaketa batzuk salbu: «idoro», «itaunquea», «iorc-», <y> idazten delarik: «yrazarri», «ytaunduric», «ypuy», «ycara», «ylgo», «yncadu», «yçanagayti»: eta txandaketaz beste posiziotan, batez ere diptongoaren bigarren elementua denean: «bay» (gehienetan) / «bai», «oy» / «oi», «ayta» / «aita», «ny» / «ni» (gehiagotan). Bestalde, /u/ hotsa adierazteko <u> eta <v> lehenetasun nabarmenik gabe, bokal artean joaten direnean hurbilkariak ere izan daitezkeelarik: «dave» / «daue».

Bokalen grafiak ez dira eragozpen garaiko sistema bokalikoa zein zen jakin ahal izateko. Zalantzarik bada, bokal sudurkariena da. Izan ere, zenbait hitzetako bokalen gainean ezartzen den zeinuak -ez erregular, halere- bokal sudurkariak oraindik ahoskatzen zirela, agian, adieraz dezake: «cateea», «miiiau», «morroe», «morroeorri», «beaçatu» 'meatzatu' <lat. 'minaciare'⁷, «errazoaric», «usayz»⁸. Izan ere, XVI. mendean eta Arabako lurralde horretan bokal sudurkariak oraino ahoskatzea oso posible da, mende berekoak diren Pedro de Madariaga kaligrafoak eta Garibayk hagitz zehazki lekukotzen dutena onduz eta egiaztatuz⁹. Dena den, kontsonante sabaiko sudurkariaren laburketa agertzeko, besteak beste, zeinu bera erabiltzen da.

7. Erdi Aroan, XII-XIII mendeetan, erromantzez 'menazar'.

8. Bokal sudurkarizat hartuko bagenitu, Arabako testuetan bokal sudurkariak markatuak agertzen diren testu bakarra hau dela esan beharko litzateke, ez Betolazan eta ez Landuchioren hiztegiaren baitira seinalatzen.

9. Bokal hauei buruzko iritziak eta erabilerak ikusteko (Pagola, 1998:169-170).

Bokalismoan gertatzen diren fenomenoak bizkaiera zaharreko testuetan jasotzen direnen parekoak dira neurri handi batean, berezitasunik ere ageri den arren¹⁰. Beraz, lotura nagusiak bizkaierarekin dituela esan daiteke, beste euskalkien ezaugarrietara ere, ez maiz baina bai jarraian, apurren bat hurbiltzen delarik.

Illo horretatik, segmentu bokalikoen tinbre-aldaketa aipagarriak gertatzen dira. Dardarkari eta albokarien aurreko bokal ertaina zabaldu egiten da: «barri», «barriz», «bardin», «alcar», «balça»; baina ez beti: «guerria». Arrazoi desberdineko hersketak eta tinbre aldaketak ere gertatzen dira: «Eusquel», «nun», «nungo», «urten», «aguirtu», «chiquir», «az chiquirra», «ule». Baina txandaketak gertatzen dira eta, beraz, polimorfismo ugaria nabarmena da, baita kontsonante sudurkarien arteko sailean ere: «guichi»/«guchi», «gura»/«gure», «emon»/«emun», baina «on», «echi»/«ychi», «exilic»/«yxilic», «efini»/«yfini». Era berean, asimilaketak: «balidi», «lidi», «ypirdietan», «guçurric», «escreviduric», «ynguiraturic», «baga», «monesterio», «gumuta», «guichi»/«guchi» eta disimilaketak: «pacenciariç», «ganchitua».

Deigarria da bokalen galera zein apurra den. Garaiko ahoskera osoa goa agertzen ote du horrek? Aferesi kasu bat: «çarriz» ('ezarriz', alegia); eta «urtan», 'uretan', sinkopa bakarra. Sorketak, aldiz, ugariagoak dira, anaptisia eginez: «geraçiea», «curela», «cureldo», «lucuru». Erromantzera makurtzen da protesirik gabe erabiltzen dituenen: «rregimentua», «rrepara», «rribera», «rretulo»; baina, «erregue», «erromeria», «erropaac», «errazoaric», «erruqui», «erregalozco», «errellea» (<lat. 'regula(m)'etik) eta txandaketaz: «erreñuetan»/«rreñuan».

Sekuentzia bokalikoetan, beherunzko diptongoen artean aipagarriak dira kontsonante sudurkaririk gabe gertatzen diren «arçai», «arrait»¹¹. Murrizketa soilak: «açartu», «Jandoneanez», «çatez» ('zaitez'), «iruli», «deadarrez»; «eben» (inoiz ez 'emen'), «ebeti», murrizketa zaharra¹². Ugariagoak dira jarraiko txistukaria sabaikatuz ageri direnak eta, beste lekukotasunekin batera, garai hartako bizkaiera mintzatuan horrela gertatzen zela ziurtatzen dutenak: «achaquiz», «gachez» –kasu honetan baita diptongoaz ere, txandaketa grafiko hutsa izan daitekeelarik: «gaichez rodeatua»–, «nax», «naxana», «naxala», «axan» –bustidurarik gabe: «naz», eta gainera diptongoa gordez: «naiz»–, «gax», «gaxtoto», «çorigaxtoan», «gox», «inox», «nox bait» eta «noxpait», «bacox». Polimorfikoa da: «baxin» ('baizen')¹³, 'n' gabeko formaz txandakatua: «baje»/«baxe», eta bustidurarik gabe ere: «baiçe»¹⁴.

10. Landuchioren hiztegian ere Mitxelenak antzerako ezaugarriak aurkitzen zituen (1958:23-25) eta baita K. Zuazok ere, oro har, Arabako testuetan (1998:130-137).

11. Bizkaierazko testu zaharretako emaitzetarako, ikus (Mitxelena, 1958:30-32).

12. «euen ni nagan lequan» Landuchiok, (Mitxelena, 1958:83).

13. «baizen > bezain», (Mitxelenak, 1977:178) emandako bilakabidearen arabera.

14. «baxe» eta «baxin» Micoletak ere erabili zituen; bestalde, «baxen» forma bizkaieraz eskuarki erabilia izan da. Azken posizioako kontsonante sudurkaririk gabe, aldiz, mendebaldeko testu zaharretan dokumentatua omen dago: «en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama» OEH 3, (Mitxelena, 1987:722).

Desberdinak dira gorunzko diptongoak txuliatzeko hartzen diren bideak: epentesiak sortuz: «crudel», «curel», baina «cruel» ere. Murrizketak: «tenda», «tendaric», «esporçu», «concencia», baina «soberviaric». Diptongatu gabeko formak ere: «fortiz», «miramentu», «pensamentu», «regimentua».

Ondo gordetzen dira hiatoak sortuz gertatzen diren sekuentziak, baita fonetika sintaktikoaren eraginez sortutakoak ere: «bidea», «Jaungoicoa», «gogorrago», «servicioan», «lecurean», «joan», «sarçaen», «lenaengo». Batzuetan, bigarren mailakoak direnak, agian diptongatuak ziren sekuentziekin txandakatzen dira: «aen»/ «ain» <'aren', «nuen» <'noren'. Eta murriztuz: «oyñ» <'orain'.

Azterketa zehatza beharko lukete Arabako beste testuetan agertzen ez diren bokal geminatuek¹⁵: <bervaaç», «doncellaaç», «plaaçaan», «erropaac», «çaarçat», «belaarria», «leen», «miiia», «dolorosooc», «virtuosooen», «içaaten», «çaaquit», «çaatean». Disimilaturik dago, ordea, «-a» mugatzailea hartuz gertatzen den emaitza: «fortunea», «tendea», «cantaetea».

2.2. Kontsonantismoa

Leherkariak

Leherkari belareen mailan, /k/ ahoskabea <c> grafiaz idazten da, kontsonantearekin trabatua doanean izan ezik, kasu hauetan <qu>: «azquero», «detizque», «çatezqueala», «onezquero». Dardarkariaren aurretik, maileguetan gehienbat <c>grafiaz: «crianza», «cruel», «escrevidu», «criadorea»; baina baita <ch> grafiaz ere: «Christobal», «ypochrita», «Christoren». Erromantzearen sistema erabat jarraituz ahostuna ere, <gu> «e' eta 'i' bokalez: «gueiago», «neguian», «begui», «eguin». Gutxitan bada ere, <g> soila ageri da: «gichi», «giçon», «gero», «gehiago», «geratu», «Gegaracoan», «usegin», «agindu». Eta, agian, beste balio fonikoa izango zuten: «genteac», «generalmente» hitz mailegatuetaoetan.

Fonetika mailan aipagarria gertatzen da hasierako posizioako leherkariaren banaketa ahoskabe eta ahostunen artean. Ahoskabeak lirateke: «piloç», «piloçic», «quilçaric», «tendaric», «pulça», «catez», «calçaidu». Baina «barrez», «galteric», eta txandaketak edo neutralizazioak gertatuz ere: «castaçen» / «gastatu», «tenpora» / «denpora». Inoiz leherkaririk gabe ere: «orapilagaz». Hasierako leherkari ahoskabearen egoera berdintsuan agertzen dira Landuchioren hiztegian eta baita oraingo Leintz bailarako hizkeran ere¹⁶. Hitz barneko belare ahostunaren galera arrunta zena Bizkaiera zaharrean¹⁷,

15. «Bokal luze edo geminatu eza da Arabako lekukoetan nabarmendu behar den lehen ezaugarria. Ez dira behintzat grafia bidez inoiz adierazten» (Zuazo, 1998:130). Mitxelenak ere hori bera zioen Landuchioren hiztegiak: «Faltan, puede decirse que completamente, las vocales geminadas, tan características de Cap. y VJ, pero que ocurren también en RS y Gar., si bien no en Bet. ni Mic., menos conservadores a este respecto» (1958:25).

16. (Mitxelena, 1958:26); ikus Zuazo ere, (1998:140-141). Oraintsuko egoerarako ikus: (K. Izagirre, 1970).

17. (Mitxelena, 1958:26).

hemen, gutxitan bada ere, ageri da, zenbaitetan egoera polimorfikoz agertzen dela: «eçautu», «çaoz», «yes», «eon», «eongo», «eoçanac», baina «egon». Ezpainetako ahozko eta sudurrezkoen arteko txandaketa aipagarria da: «beaçatu» ('meatzatu'). Landuchiok ere jasotzen zuen «gabineteoi» (<'ganibeta'), metatesia eginez. Esaera polimorfikoan zeuden partizipioetako '-ki /-gi' atzizkiak eta, beraz, atzizkiaren txandaketa bezala hartu beharko da gertatzen diren: «yregui»/«irequi», «jaguin»/«jaquin», «eguin»/«equin»: «bere flecheaz yregui» / «belarrioc yrecaçu eta dançuçun», «emun jaguite»/«ançi jaquinic», «bervaen artean eguion erregutu»/«despedidu equion»¹⁸.

Ahoskabearen alde neutralizatzen dira igurzkari edo afrikariaren ondokik doazen ahostunak, bat-bateko ahoskera agertuz: «ezterechut», «ezton», «eztau», «aberaspatequin», «aberas pategaz», «aberaspat», «garrazpi», «axpurucoac»; edo leherkariaren elkarketaren ondorioz gertatzen dena: «nitaucautat», «bapere», «galanpat», «nipere», «ust eztidin», «extazu» (<'echit dazu'). Nahiz eta txandaketak ere gertatzen diren: «noxpait»/«noxbait», «ez dozuna», «ez badot bere». Azkenik, sail honekin amaituz, 'muta cum liquida' taldearen tულიaketa garbia aipagarria da: «cureldo», «curelac», «luqurea» ('lucro'), «gureaçia» ('gracia').

Txistukariak

Hobietako sailean, bizkar-hobietakoak eta mihipunta-hobietakoak, alegia, hots afrikariaren grafiek bat egiten dute igurzkariarekin. Hori dela eta, grafien eta hotsen arteko lotura irizpide etimologikoz egin behar da¹⁹. Beraz, <ç> edo <z> grafiak edozein posiziotan eta tinbre bokaliko guziekin agertzen dira, bizkar-hobietako igurzkariaren ala afrikariaren balioa eduki dezaketela: «çorroçic», «zorroz», «eçin»/«ecin»/«ezin», «çegaz», «çiteçenean», «çidin» «esaçu», «çure», «bioçean», «erioçea», «serviçen», «eçinic», «bioçori», «causaç», «jaçu», «zaoz», «jaoz», «oz».

Beste horrenbeste gertatzen da mihipunta-hobietako hotsa adierazteko erabiltzen den <s> grafiarekin. Grafia soil honek, ez baita ez luzerik ez bikoitzi agertzen, igurzkari ala afrikariaren balioa eduki dezake; afrikaria: «losa», «aseguin», «aseden», «ese», «esai», «ysi», «deuso», «eusan», «ausi», «sinis», «aus»; igurzkariak diren: «saldu», «sartu», «icasi», «esan», «beso»; eta balio biak ageri ditu honek: «isasoarena».

18. Lurraldeen eta testuen arabera banatzen ditu Mitxelenak atzizki hauen gertaerak: "los participios en -gí, oriental -ki, como *exegui* «colgar», *yregui* «abrir» (pero *euqui*, *euchi* «tener», frente a Gar., RS, Mic. VJ *eugui*, Cap. *edugui*" (1958:37).

19. Hegoaldeko idazleen tradizioa, oro har, hots hauen grafiak ez bereiztearena izan da. Hala ere, bada salbuespenik: Fray J. de Zumarragak behin «bortz» idazten du; RS-en, mihipuntakoa askotan bereizketarik gabe idazten da, baina badira: «yssi, yssua, «aberas», «essean», «etsecoandrea», «oshsoac», «ocshoso»; Landuchiorenean, batzutan bereizten dira, eskuen arabera: «aunçaya», «așç andia», «pușça», «bederasçi», eta bizkar-hobietakoetan: «ausça», «osçayla», «aussia», «asseruz ostico egoçi». Betolazak ez zituen bereizten.

Fonologikoki sistema ongi gordetzen dela ageri da, ziurtasuna eta nahasketarik eza dira adierazgarrienak, baita posizio inposiboko <zt> taldean ere, hain aldakorra dena bestalde²⁰. Hala ere, badira zenbait nahasketa grafiko beti igurzkarien artean eta inoiz afrikarietan, «gausaric» hasieran eta gero zuzendua «gauçaric», «desesperanças» (nahiz eta <s> sigmatikoa bezala ere har daitekeen azken grafia hau), «azpertu»/«aspertu», «çufrietaco», «toleztaduric», «monezterio» edo jarraian datorren olerki zatiaren azken bertsoaren azken hitza: « Esaten yracastaçu/Axparreneco larrosachoac/geraçiea yndaçu/morroie galant estiraduac/oy defendidu naguçu/oy Gaztelaco erregue jauna/erreguiagaz ycasu». Kasu honetan, pasartea oso argia ez bada ere, “ycas çu” edo “ycasçu”, puntuarekin bat eginez, espero zitekeen. Edonola ere, agertzen diren kasuak, gutxi dira, ez denak hain garbiak eta ez dirudi aski direnik igurzkarien arteko nahasketa hasia zegoenik esateko.

Sabaiko sailean igurzkari ahoskabea, oro har, <x> grafiaz adierazten da: «gaxoric», «geldixe», «goitixeago», «gaxki». Azken posizioan ere: «gox», «inox», «nax»; <x> grafia bokalarrean, gutxitan bada ere, <j> txandakatzen da: «baxe»/«baje», «bixe»/«bijeac», «gajoturic»²¹. Hitz maileguetako <x> grafiak garaiko erromantzearen ahoskera izango zuen ziurrenez: «exemplu», «prolixidadea», «baxadu», «proximoari». Sabaiko sail honetan, <ch> grafia, berriz, posizio guzietan eta beti sabai aurreko afrikari ahoskabearen balioarekin erabiltzen da: «chitez», «chu», «chiquir», «ichi», «guchi», «gach», «gachori», «bacochic», «bacoch», «anech», «nachaçu», jatorri ezberdinetakoa, noski, ikusten den bezala. Hitz maileguetan ere: «chapitelagaz», «escuchadu», «flecheaz», «sospecha», «cuchilladea», «estrecho», «tacharic». Azken posizioan gertatzen diren kasuak txandaketa soilak baino ez direla esan daiteke: “eguin eusan promeseaz eçe casi eucan gax/guztia quendu jacan”, “inocentea damu diat/ain gach andia obraetan” eta “aldi bat perla lindea eguin eguiçu/nigaz orrdu bacox bat cumplidua”, “estilo onçat arttu doçu/erro bacoch bat jaiztea”. Bestalde, maileguez eta hasierako posizioakoez kanpo gertatzen diren sabaiko hots hauek diptongoaren murrizketaz gertatzen diren bustidurak edo atzizki adierazkor edo indartzaileak diren «-xe», «-cho» eta «-che»: «claruxeago», «goitixeago», «presenteac», «mutilcho», «choricho», «Pericho», «bercheac», «daquidancheau», «gueucheoc». Inoiz «-je» grafiaz ere: «urteje».

Hurbilkaria, sabai-aurreko igurzkari ahostuna eta, agian, belare igurzkari ahoskabea?

Sabaiko hurbilkaria izango zen hasierako posizioan agertzen den <j> grafiari dagokion hotsa²². Horrela, *e- zaharretik bilakatutako aditzetan: «jarri»,

20. Iparraldeko idazleengan, esaterako, non ez den hots hauen arteko nahasketarik gertatzen, aski maiz agertzen da <st> grafiaz emana. Bestalde, Landuchiok: «gustion», «abustua», «abustuyla»/«abuçtuan», «abuçtuo» formak ditu. RSen: «gustiz», «ascaldu», «ustail», «gastaeoc» e. ab. Betolazak ere: «gusti».

21. RSen <j> grafiak sabaiko igurzkari ahoskabearen balioa ere eduki dezake: «goxetico»/«gojtu» ('goxtu', 'madrugar', alegia), «exilic»/«ejilic».

22. Hemen ere, garaikideak diren beste testuetan bezala, oso tinkotasun handiz idazten da hasierako posizioari dagokion hotsaren grafia, «j-», alegia, eta inoiz ez «x-».

«jo», «jate», «jaio», «jaquinic», «jaisten», «josiric»; zenbait hitzetakoa: «jaun», «Jauna», «Jaungoicoa», «jaureguietan», «jabe»; adizki jokatueta **dj*-ren bilakabideaz gertatutakoa, agian sabai-aurreko igurzkari ahostuna izan zitekeelarik: «jat», «jacu», «jabilt», «jatala», «jafindazu». Txistukariaren ondotik doanean ez da afrikaria izatera iritsi oraindik, edo ez, behintzat, afrikari ahoskabea: «ez jat», «ez jaçu», «ez jaquiteac». Hitz barruko bokalarteko sekuentzietan ere hurbilkaria edo horren antzeko hotsa²³ ahoskatuko zen, <y> edo, txandaketaz, <i> grafiaz ematen zen hotsa: «goyan», «mayan», «baya», «gueyago», «leyan», «jayo», «neyo», «maia», «baiez», «jaio», «çelaïetati», «arçaiæen»; hagitz gutxitan <j>: «ojal», «jajoa».

Beste hots bat agertuko luke, sabai-aurreko igurzkari ahoskabea, agian belare igurzkari ahoskabea, zenbait hitz mailegatueta: «enojadu», «biajea», «juglare», «trabajuric», «bentajaz», «frijidu», «naranjea», «monjea», «conjuro».

Sonanteak

Sabaiko sudurkaria adierazteko <nn> eta <n> grafiak laburduraren zeinuarekin agertzen dira, eta «nn» soila ere bai balio bera adieraziz: «oraingan-no», «oynn». Beharunzko diptongoaren murrizketaz maiz gertatzen da: «ceña» «oñac», «señaleatan», «soñac», «baño», «gañean». Horiekin batera: <yñ> grafia: «suyña», «muyña», «ayñ». Eta horien parean txandaketak: <n> eta <in>: «çeyna»/«çeina»/«ceyñac»/«çeñac», «baino»/«baiño»/«baño», «soynean»/«soña», «gainea»/«gañean» («ganean» ere badarabil), «ainbat»/«aynbat»/«aiñ». Gertaera hauek ikusirik, <yn>, <yñ>, <in> eta <iñ>, denak sabaiko sudurkaria adierazteko digrafoak direla pentsa daiteke²⁴. Beste jokabidea idarokitzen du <i> segmento soilarekin doanean, hobietako sudurkari huts bezala agertzen baita eta inolako txandaketarik gabe: «aleguina», «aseguina», «arinago», «ifiniric», «jaquinic», «ecinic», «dinat», «dafinela», «guinean», «bacina», «mina». Mailegueta, txandaketarik gabe, beti <ñ> tinkotasun handiz: «cañadaetan», «engañadea», «estrañua», «cabaña».

Bestelakoa da sabaiko albokariaren agerpena, euskarazko hitz bakarren baten baino ez baita agertzen: «yllun», «yllundu», «yllunetan», «vasallorea», eta ugaritasunez hitz mailegatueta: «donzellea», «dollar», «llantuac», «silla», «villa», «cuchilladea»; kasu batetan <l>rekin txandakatuz: «umilladuric»/«umiladuric»; eta, inoiz, [li]ren balioaz agian: «balloa», «lloaque» ('balioa', 'lioake'). Bustidurarik gabeko formak dira arruntenak: «exilic», «ebili», «bilaetan», «mutila», «bila», «yla», «dadila», «erabila», «baebilen»; baita, noski, azken posizioan gertatzen denean ere: «sotil», «nabil», «dabil», «mutil», «exil»²⁵.

23. Sabaiko leherkari ahostuna edo sabai-aurreko igurzkari ahostuna, alegia.

24. Carmen Isasik Bizkaian idatzitako erromantzerako ere galdera bertsua egiten du albokari buruz (1995:659).

25. Landucchiorengan ere: «il», «ila», «yla», «ylena», «yltea», «ylun», «yluña», eta «illa», «illea», «illondoa» eskuizkribua idatzi zuten esku desberdinen arabera.

Dardarkarien grafia bikoitza, erromantzez prestigiozko grafia zena, pertinentea ez den testuingurutan ugaria eta ia grafia bakarra da. Hasierako posizioan, mailegu berrietan, batez ere bokal protetikorik gabeetan ia beti bikoitza, maiuskulak ere hori bera agertzen duelarik: «rrepara», «rreñuan», «rribera», «rremediatu». Protesidunak, beti <e> <z>, gutxiago dira eta horiek, zenbait kasutan, mailegu zaharragoak direla eta hizkuntzan sartuagoak daudela adieraziko lukete: «erregue», «erregutu», «erregutan», «erruqui», «errazoaric», «errietea», «erropaac». Leherkari ahostunaren ondoren: «librreria», «librrero». Barruko posizio inposiboan: «arrtan», «arrçai», «arrgui», «berrba», «errdira», «orrdeko», «arrcue», «urrite»; posizio horretan galerarekin txandakatu ere egi- ten delarik: «eguin bea dau»/«bear dau eguin», «nogaiti»/«norc». Eta, noski, azken posizioan ere grafia bikoitzaz: «urr», «gaurr», «ederr», «amarr», «alcarr». Inoiz nahasketa grafikoak ere: «bilduric» ('bildurrik'), «erori»/«erorri»²⁶. Inoiz <r> soila gainean laburduraren zeinuarekin, dardarkari anitza adierazteko, alegia. Bestalde, bokalar-tean doan dardarkari soila, hurbilkari bezala hainbes- tetan ahoskatzen dena eta, euskalkien arabera, hortzetako leherkariarekin txandakatzen dena, hemen ere agertzen da: «berarr», «berarraz», «irequi», «belarico». Metatesiz agian, Landuchiok ere jaso zuen, «yrago» forma.

2.3. Ondorioak

Aipatu diren hotsez eta egin den analisisiaz gain, laburbilduz, maila gra- fikoaren iruzkinak egoera ahulean uzten du sistema fonologikoaren hots guzien deskripzioa eta azterketa egokia egiteko aukera. Idazkerak berak ere zaindua- ren itxura duenez, herri-ahoskera baztertua gelditzen oten den susmoa har daiteke eta, erromantzearen grafiek ez dute biderik ematen euskararen hots propio guziak adierazteko. Txistukarien sailean, XVI. mendeko beste testuetan baino sistema tinkoagoa erabili arren, artikulazio-moduak ez bereizteak zenbait arazo sortzen ditu. Hala ere, txistukarien sistema ondo gordetzen dela esan daiteke eta nahasketa agertzen duten kasu banakak ez dira aski desfonologi- zazioa hasia zenik esateko. Aspiraketa badakigu aspalditik galdua zegoela, eta hemengo euskal hitzetan hori erabat garbi agertzen da ezpaita batere <h>rik agertzen ezta etimologikoa izan zitekeen kasutan ere. Sabaikoen saila ez da garbia: sonanteen ahoskerak, sudurkarietak batez ere, itzal handixkoak ditu eta sabaiko leherkarien egoera eta erabilera ezin daiteke jakin, ez baita inoiz agertzen horrelako hotsik adieraz lezakeen grafiarik.

3. LEXIKOA

Lexikoa hizkuntz ikertzaileei eskuragarrien gelditzen zaien elementua da, baina, bide batez, arriskutsuen eta nahaspilagarriena ere bai, hitzak hega- lariai baitira, harat-honat giza-harremanekin batera ibili ohi direnak. Beraz, ez dira irizpiderik gotorrena hizkera bat deskribatzeko ala hizkera hori toki ezagun batean kokatzeko. Hala ere, lexikoaren azterketak hizkuntzaren beste ezaugarriekin batera hartzen du indarra eta bihurtzen da lagungarri hizkera bat identifikatu eta bereizteko.

26. Landuchioren hiztegian ere «erorri» dokumentatzen da (Mitxelena, 1958:76).

Lazarragaren eskuizkribuak, testu narratzaileez osatua dagoenez gehienbat, lexiko ugari eta ugaria du. Narratzailea da aurrenean datorren artzain-kontaktuzuna, eta berdin dira poema gehienak ere. Narrazioa izatea ez da aski hitzen ugaritasuna justifikatzeko, baina poematan eguneroko egoerak agertzen direnez, hitzak ere gehitu egiten dira neurri berean, hitz erabiliak eta erabilgarriak, noski, gaien arabera. Lazarragak askatasunez eta aisetasunez darabil hizkuntza, ez duelarik hitzekin behaztopa larriegirik egiten ez eta hizkuntz garbitasunaz kezkarik ere agertzen. Honekin ez genduke besterik deus iradoki nahi hitzen erabileran inolako arazorik ez duela baino. Erdal hitz ugaritxo sartzen dituela eta ez beti ezinbestez? Agian, bai, baina ez dago egungo ardurak orain lauhun urtetara aldatzerik ikuspegia erabat lausotu nahi ez bada. Lazarragak, ezer agertzekotan, komunikatzeko doitasuna agertzen du eta hizkuntz erabileran –kasu honetan euskararenean– gaitasuna eta bai arreta ernea ere.

3.1. Bizkaierazko lexikoa

Esan bezala, ez da harritzekoa beste hizkuntz mailek ageri lezaketena, lexikoak ere, bere arrisku eta guzti, hura bera egiaztatzea. Baina, horretarako, batez ere bizkaierazko hitz bezala har daitezkeenak eta bizkaierazko testuetan batez ere dokumentatzen direnak hartzen dira kontutan. Eta egun ere bizkaieraz bizirik badiraute, hainbat laguntza hobe gertatuko dira.

Ez dago hemen hitzez hitz aztertzen hasterik, kasu bakoitzak bere historia eta garapena baitu, baina testuetan erabiltzen diren hitz askok ez dute eragozpenik bere kokapena bizkaieran ezartzeko. Hala nola, *berba*, *ereitzi* / *erechi* ('deitu', 'izena izan'), *bentanea*, *gumuta*, *leguez* ('bezala'), *laco*, *eroan*, *gaxaesun* ('gaisotasun', 'eritasun'), *gueratu*, *gumutatu*, *gura*, *senarrgurea*, *ecusgurea*, *bervagurea*, *baga*, *bague*, *parebagea*, *canpaac*, *ytaundu*, *ytaunquea*, *yraçarri*, *se(h)i*, *arerio* (etsai ere badarabil), *domeca*, *jasarri*, *barriz*, *bardin*, *auma*, *azuri*, *baracatz*, *jaquea*, *jausi*, *eguazten*, *eguaun*, *eguaunguren*, *ostean*, *osteango*, *osteangoan*, *Peru* eta *Peria*²⁷, eta beste asko bizkaieraren hitz ezaugarriak dira eta, horrenbestez, beste euskalkitako lexikoarekin erkatuz bereizgarriak ere bai zalantza handirik gabe.

Hitz horiez aparte, badira beste euskalki batzuekin amankomunak, baina bizkaieraz erabiliagoak izanik, bizkaieraren adierazle gertatzen direnak, esaterako: *barru*, *ugaçaba* (behin *jabe*), *ugatz*, *mesede*, *loacartu*, *berebiçiko*, *jasarri*, *urreean ebili*, *lartzan*, *lartzan izan*, *arrezquero*... Ala bizkaieraz forma apur bat aldatu egiten dutenak: *sinistu*, *ule*, *obato*, *azartu* ('ausartu'), *inguiratu*, *aratixte*... Ala ohizko esanahiaz gain, besteren bat berezia hartzen dutenak: *osatu* ('sendatu'), *jarri* ('eseri'), *biurtu*, *biurqueta* ('itzuli', 'itzulketa'), *ezarri* ('bota'), *aguindu* ('bidali', 'igorri'), *esque* ('bila')... Eta egun ez erabili arren, garai bereko bizkaierazko testuetan dokumentatzen direnak, adibidez, *aitasuna*, *beaçatu* ('meatzatu', hots, 'mehatxatu'), *bear* ('erru'), *apucadu* ('gertatu', 'agitu'), *eguçaria*, *olç* ('horma', 'pareta'), *yramo* ('jaurti'), eta *abar*²⁸.

27. "Jandone periac / ez eguiian besteric / sartu eguiian / gabinetea exilic" (46v).

28. Aipaturiko hitzak Landuchioren hiztegian ere ageri dira (Mitxelena, 1958).

Azkenik, sintaxi-erabilera desberdina edo berezia dutenak ere badira, esaterako, *urten*, *ygo* –“Acabaduric bada Silveroc bere cantaetea urten / eben bere camararean eta ygo eben bere uga– / çabaren aposentura” (6v), iragankorrak, beste euskalkietan ez bezala, ala *eldu*, inesiboa eskatuz beti, ez dena hain usatua oro har: “Ribera baten eldu ninçan” (27), “joan çirean confusioco esera nun eldu çirean yrugarren egunean” (13v).

Badira hitzen artean kontutan har daitezkeen morfologia eta sintaxiko baliabide garrantzitsuak. Batzuk hitzak direlako berez: hala eçe lokailua, esakune konpletiboak, ondoriozkoak, kausazkoak eratzeo erabiltzen dena; *ei*, Arrasateko erreketaren kantuan dokumentatzen dena²⁹, hemen ere jasotzen da –“obra barri bat ey daucauçu / nigaiti conponiduric”, “Salbatierra / egun ey dago tristeric” (41)–, *bide* ere, balio berarekin, birritan ageri delarik; ze ezezko balioarekin, bizkaierazko hainbat testutan dokumentatzen dena, hemen ere kasu denetan aginte esaldietan: “arren çebeguit burlaric” (20), “orain edola bere çenafinçu” (32), eta “fia çeçatez”, “cebeuçaique”, “çebesaqueo”, “çebitez”, “çegabilçaden”, eta abar. Bi gauzez ohartu behar da: bate-tik, beti forma jokatueta agertzen dela, sekula ez jokatu gabekoetan eta, bestetik, gehienetan adizkiari lotua idazten duela. Horrek, agian, adierazi nahi du aditzaren jokaerak bi forma izan zitzakeela, baiezkoa eta ezezkoa, agintera balioko erabileraren paradigman³⁰.

Beste batzuk, hitzak sortzeko ahalbide eratzailak izanik, hitzetan baino ez dira ageri, baina bide batez hizkera baten ezaugarri dira, esaterako, *-to/-do* moduzko adberbioak eraten dituen morfema: *ondo*, *cureldo*, *cortesdo*, *obato*, *gaxtoto*, *galanto*, eta abar³¹.

Aipatu diren hitz horiek ongi erakusten dute Lazarragaren testuek bizkaierarekin duten hurbileko elkartasuna, baina badira euskalki konkretu bati atxiki ez dakizkioken beste hitz asko ere bizkaierarekin lotzen direnak garatu duten forma berezian. Har dezagun *aitzaki* hitza, eta *achaki* haren ahoskera bilakatu baino ez da, baina bizkaieraren eite ukazina du. Beraz, formari atxikiz, noski, eta fonetikaz eta grafiaz eskaini diren azalpenak berriro errepikatzen ihardun gabe, hitz askok ongi ezagutarazten dute zein euskalkitan kokatzen diren, eta agian beste asko jatorragotzat har daitezkeenak baino ez okerrago. Hona zenbait adibide: *achaki* bera, *alcar*, *andi*, *axea*, *balça*, *bardin*, *barriz*, *baxe*, *bildur*, *cantaetea*, *çegaiti*, *chiquir*, *çorigacha*, *çorigaxto*, *echurea*, *tristurea*, *emon*, *emun*, *ernegatu*, *erroitu* (‘arroitu’ ezaguna da Nafarroan), *gaba*, *gach*, *gaxto*, *goxa*, *guichi*, *guzur*, *laster*, *lauren*, *narru*, *oçitu*, *onerechi* eta *onerechia*, *parcatu*, *pultzatu*, *ychi* (‘utzi’, beti datiboarekin³²), *ydoro*, *ypirdi*, eta abar.

29. *Cantares de la quema de Mondragón*: “Madalenaan an ey dauca” (Mitxelena, 1964: 83).

30. *Refranes y Sentenciasen*, Capanaga eta Micoletarengan agertzen da forma hau. Ikus, honi buruz, (Azkue, 1969-2:470-471).

31. Lasturko Miliaren eresietan ere ageri da: “Peru Garciac eguin deuscu laburto”, “Mandarioc eguin deust gaxtoto” (Mitxelena, 1964:75-76).

32. “niri bacarric ychiric”(11v), “bere buruari ychi eusan lurrera jausten” (12).

3.2. Esamoldeak eta hizketan erabili ohi diren klitxeak

Eskuizkribu honetako testuetan maiz errepikatzen dira zenbait esamolde eta mintza-baliabide, hizkeren ezaugarri apartak gertatu ohi direnak, ez baitira elkarren artean hain erraz kutsatzen Hauek ere bizkaierarekin lotzen dira gehienbat, bizkaierazko beste testu batzutan ere dokumentatzen direlako edo/eta gerora ere gordetzen direlako.

Oy, oy eta, oita, oyta

Arront fosilizatuak ageri dira nahiz formaz, nahiz balioz, nahiz erabileraz. Gehienetan, testua komunikazioa den aldetik, alferrikakoak dirudite, ia deus galduko ez bailitza faltako balira ere. Esaten denaren indargarri-kutsua gordetzen ez ote duten pentsa daiteke, zenbait kasutan argixeago, baina beti ere irakurleak berak balioaren bat aurkitu edo ezarri nahi dielako: “Oi Sirena çegaiti çatoz / oy eta ene açean / ynposible oy dan azquero / nic çuri on erextea” (11v); “bere beguiac oy berabilque / laztanchoagan josiric / secula gauça guchiagaiti / çebegui sentimenturic / oy beaçatu badagui bere / ez eracusi bilduric / oyta yrago çebequiqueo / bisitaçaca asteric” (24v)³³.

Arean da... artean, arean da... -ano

Lokailu hau bizkaieraz dokumentatzen da. Eskuizkribuan denborako eta toki-denborako eraikuntzak eratzeke erabiltzen da. Eskuizkribu osoan hasierako artzain-narrazioan baizik ez da ageri. Gerora, Prai Bartolomek ere badarabil *Olgeeta* liburuan, eta esan daiteke Lazarragarenak ongi sendotzen duela Prai Bartolomeren erabileraren jatortasuna³⁴. Gaur egun ez

33. Geroago, norbaitek aldetak sartu zituen Lazarragaren eskuizkribuko poema baten (47 eta 47v), baina poema horretako hiru kasutan elementu hauek ezabatu egiten zituen besterik gabe. Behin, *oyta* ezabatuz *cierto* ipini zuen haren orde. Ezabatuaren “ordez” ipini zuela pentsatu behar da, ez hura aldatu nahiz; izan ere, *cierto* ere indargarria gertatzen delako eta ez beharrezkoa komunikazio konkretu horretan ere.

Baina, galdera honako hau da: zergatik kendu ziren elementu horiek? Aldaketa horiek sartu zirenean galduak zeudelako, noski. Arrotzak, ezezagunak izango zirelako, bestela ez zeuzkan bere hartan utzi besterik, bertsoaren neurrirako ere garrantzitsuak baitziren. Testuaren egileak berak ere “çiertu” badarabil: “çiertu baçeequi esan doçun berbaocaç eguin deustaçun aseabea” (11v); eta oy eta *ciertamente* elkarturik ere bai: “oy bada bere çiertamente / banago enojaduric” (24v), eta erabilerak hauek *oi*-ren fosilizazioaz gain, haren balioaren erabateko galera ere iradokitzen dute, noski.

Pedro de Abendañoren eresian ere erabiltzen da: “Oi aldioneri albanegui empara” (Mitxelena, 1964:79); Micoletak ere erabiltzen du bestelako esanahirik gabe, bertsoari silaba bat gehitzeko agian: “Dempora baten on oynerechu” (Zelaieta, 1988:192).

34. Prai Bartolomeren erabilera honela jasotzen du Azkuek hiztegian hitzari egiten dion hiru-garren azepzioan: “(B), a saber, es decir: à savoir, c’est-à-dire. ONDO KONPESAU BERE EZIN LEI-TEKEZELA, AREAN (ARIAN) DA, DOTRINEA IKASI...: sin poderse ni siquiera confesar bien, a saber,

...

dirudi erabiltzen denik, eta *arean* erabiltzen den arren, bizkaieraz hau ere, honek ez du haren balio bera.

“Silviac uste eben eçe escu arrtean ylgo liçacala arean da beregan biurtu çeitean artean” (5v); “Onela bada Doristeoc eta Sirenac eguin even euren byajea arean da Silvero egoan lecuan el çitezqueano” (12).

Bada bere, bada nic bere / badanic bere

Maiz ageri dira esamolde hauek eskuizkribuan, balio adbertsatiboaz oro har. Bien artean bereizketa nabarmenik ez dago balioaren aldetik. Beste hizkeratan erabiltzen den *bada ere* formaren eta honen beste forma bilakatuaren parekoak dira. Hala ere, *badanic bere* / *bada nic bere* –bietara idatzia– forma berezia da eta lokailu kontzesiboan izango luke jatorria³⁵: “pagaetaco ezin neyque / bapere serviçioric / oy bada bere presentechoau / artu eguiçu niganic” (23v); “çedaidiçu pensadu / neure erria alabaçerren /nic ditudala fingidu / badanic bere jaquin eguiçu / oyta naxala fundadu / oy anchinaco liburuetan” (18v).

Badira beste zenbait, ezagunagoak oro har, eta gehienak beste testuetan ere dokumenta daitezkeenak. *Beti bere* (‘beti ere’, ‘beti’): “Çerren beti bere da arinago / borondatez nequea eguitea” (28). *Edola bere* (‘nolanahi ere’): “edola bere joan bano leen / oy bearr doçu ycasi” (19v). *Nora ta nundi* (‘noranahi’, ‘edonora’): “orregati Doristeo çoaç nora ta nundi gura doçun eçe nic ychico eçteuçut” (11v). *Nun bere (baita)* (‘nonahi’, ‘edonon’): “Nun bere baita asco dago / enetaco doloreric” (36). “Amoraduoc ecustenean / euren buruac loturic / aen bioçac nun bere baita / egon joaçen tristeric” (25v)³⁶. *Gabaz egunaz* (‘gau eta egun’): “Gabaz egunaz oy nituan / aren ateac rronda-du” (25v); “gabaz egunaz servidu begui / secula asperçacaric” (25v); “onela yragaiten jat gau egunac” (32). Ez *gueiago* eta *bai gueiago*. Ez *gueiago* ezezko

...

hasta aprender la doctrina...; sans pouvoir même se bien confesser, à savoir, jusqu’à apprendre la doctrine...” (*Olg*, 183-15)”, (Azkue, 1969-1:62). Zita honi buruz, Retana hiztegiak honako hau dio: “Esta interpretación no es correcta. Arian da (*arean eta*) es equivalente a *arik eta*, y con *arte* o *artean* al final de la frase significa simplemente «hasta que...». Al texto citado por Azkue le falta *artean* (ikasi artian). El «a saber» está de más” (Retana, 1976:380).

35. Bizkaieraz bada oraino horren, edo horien, antzekorik ez aurretik erantsita: *ezpabere*, *ezpere*. OEH-k jasotzen dituen testuak denak bizkaierazkoak dira, Capanagatik hasita, forma desberdinak hartzen duelarik: *ezpabere*, *ezpadabere*, *ezpabe*, *ezpaere* (Mitxelena, 1987-7:729); Larra mendik ere jasotzen du hiztegiari “Sino” sarreraren (1853:399). “Bertso bizkaitarretan”, (Lakarra, 1984-2:116-123), «*espabere*» eta «*ezpa*» / «*espa*» ageri dira balio berdintsuarekin; eta «*espada*» lokailu adbertsatibo eta aditz bezala uler daitekeela: “Ain golpe segurua / espada amenazua”; eta «*espadosu bere*», «*espadaquizu bere*» ere bai, balio kontzesiboaz, denen artean uler daitekeelarik garai bateko «*bada bere*» lokailu adbertsatiboaren egitekoa nola har lezakeen «*ez bada bere*» > «*ezpabere*»-k.

36. «Nun bere» esamolde ez delarik ere gertatzen da, noski: “Ascanio erechan guiçon aberas pategaz jarri çan nun bere ganadua goardaetan eben” (9v).

esaldi koordinatuen bigarren eta hurrengo perpausen lokailu bezala erabiltzen da batez ere, baina baita baiezkotetan ere, esaldiaren testuingurua edo esanahi orokorra ezezkotzat har badaiteke. Bere esanahia “ez eta ere” edo “eta gutxiago” bezala izan daiteke: “çerren nic çuri eman eztiçut / artaco ocasioric / ez gueiago nic eguin ez dot / çure basoan egurric” (41); “çerren ez daucae / nun paseadu caleric / ez gueiago / erregalozco tendaric / ez gueiago / alcate rregimenturic” (49); “oy deboçio / guchi çeucan tenpluan / saçerdoteac / meça esate orduan / ez gueiago / predicaeta orduan” (45v). *Bay gueiago*, berriz, baiezko esaldi koordinatuetan, “baita ere” edo “eta gainera” bezala: “traidoreac chu egiten / deusae losa bagueric / bay gueiago / ostein asco burlaric” (46v); “asco erre da / barruan joia galantic / bay gueiago / oy asco arca gariric” (48v). *Aldi bat* (‘behin batean’, ‘egun baten’, ‘behinola’ eta ‘behin’), bi balio hartzen ditu biak hagitz hurbilekoak elkarren artean: “Aldi bat lecu secreto baten / neuronu çidan aguindu / jentil onbrea ona çatozque / gura banoçu gozadu” (25v); “aldi bat perla lindea eguin eguiçu / nigaz ordu bacox bat cunplidua” (32). *Bertati*, (‘momentu beretik’, ‘bat batean’, ‘ordutik’): “Sirenac bisitadu balegui bertati osatuço çala” (5v); “eta dacusqueçun gauçagayti ez beguioc espilurean quendu çegayti bertati galduço çara” (13v); “oy eta barriz andiegui da / ezconduren carguea / bertati dacarr guiçonaençat / ardurea ta plaguea” (42)³⁷.

3.3. Nongo bizkaiera, ordea?

Badakigu Arabakoa dela eskuizkribua. Ezagutzen da baita ere Arabako zein alderditan eta, zehatzago, zein inguru konkretutan ezar daitekeen, batez ere egilearen bizilekua ezagutuz eta olerkietan eskaintzen diren hainbat aipamen kontutan hartuz. Halere, tokiaren aipamena ez da aski izaten ondorio finkoak atera ahal izateko.

Edonola ere, bizkaieraren bidean aski argi jarri gaituzte orain arte eman diren datuek. Badira beste asko, morfologiakoak batez ere, oinarri dezaketenak alderdi horri buruzko zeinahi iritzi. Esaterako, deigarria da zenbat erabiltzen den aditz izenak eratzeko *-ketan* atzizkia, egun ere ezaguna dena Deba Goieneko herri batzutan: *erreguquetan*, *bidalquetan*, *eresquetan*, *sinisquetan*, *eyzquetan*, eta abar.

Hitzek ez dute balio gehiegi hain mugaketa zehatzerako, ezpaita erraza azpi-hizkera konkretu baten hitzak finkotasunez dokumentatzea eztabaidarako biderik utzi gabe. Kasu honetan ere berdin gertatzen da, ia ez dagoelako hitz hain partikularrik bizkaiera berarekin nahas ezin daitekeenik, horren ondorioz froga-balioa erabat galdu gabe. Halere, beste hizkera-ezaugarrien lagungarri ekar daitezke banaka batzuk.

37. Micoletak “Romance”-an dio: “etorrigo xasu / gacha bertati”, eta honela itzultzen du: “Se le ha de venir / Algun mal luego”; eta beheaxeago: “bertan zeloac / luego zelos” (Zelaia, 1988:193); eta “luego” gaztelarazko hitzak, garai haietan, “berehala”, “jarraian” esan nahi zuen.

Pilox, piloxic. Hitz hau, hasierako posizioko biezpainetako ahoskabearekin Deba Goienean, Oñatin behintzat, erabiltzen da. Hiztegiek ez dute jasotzen, OEH-n forma horrekin agertzen bada ere, baina *biluz* sarrerara igorritz besterik gabe. Esanguratsua da hau eta berezitasun bezala indar handiagoa ematen dio, eremu honetan forma hau eskuarki erabiltzen baita: “oyta capa bat emu-nagaiti / ez nax gueratu piloxic” (41); “Piloxic jaio ninçan pilox nago / piloxic ylgo nax ni guero bere”(33, eskuineko alboan goiko ertzean).

Quilça. Mitxelenak Landuchioren lexikoari egiten dion sarreran hitz honen forma hau jasotzen du, tokia ere seinatuz³⁸: “çeuire aoan doçu aguiro / an ez doçuna quilçaric” (47).

Pultza. Hitz hau ere aipatzen du Mitxelenak³⁹: “Arrc niri tira nic ari pulça” (25v); “guztizco uzcarr terrible bat / nic baneguion pulcatu (sic)” (26).

Chu eta chu egin. Hagitz markatua da Deba Goienean, hangoa bakarrik ez den arren, baina beste ezaugarrien lagungarri gerta daiteke: “traidoreac chu egiten (sic) / deusae losa bagueric” (46v).

Tremes. Hitz hau ere Deba Goienean erabiltzen da eta oraino bizirik dirau. Azkuek Arrasate eta Oñatin kokatzen du⁴⁰. Adibide bakarra den arren, argigarri gertatzen da, testuinguru garbia eta esanguratsua baitu: “maira datorrenean barriz / baba çigorrez saldea / çazpi libraco tremes andia / faisaeçat aldean” (42).

3.4. Egun beste euskalkietako hitzak

Goian esan dena, hots, hizkera konkretu bat zehazteko hitzak ez direla, berez, hain baliotsuak, hemen ere aurrean izan behar da. Izan ere, badira testu hauetan hitz ugari ezin zaizkionak bizkaierari espresuki ezarri, batez ere inguruko euskalkietan ere esanahi berarekin erabiltzen zirelako garai hartan eta gerora ere. Honek ez du esan nahi, ordea, hitz hauek gutxi edo gutxiago erabiltzen zirenik esku artean dugun hizkera honetan: *emazte, erregutu, aseguin, asegabe, urrun, odei, alferrik, laz, ortos* (‘ortots’, alegia), *ori, eror(r)i, suga-tea, bida çidor, baba çigor* (ziurrenez ‘idor’, ‘lehor’ esanahiaz, eta ez «xigor», ‘tostatu’), eta abar.

Horiez gain, badira zenbait geroagoko erabileran ekialde eta iparralderago jotzen dutenak, baina testu honetan ere egokitasun eta berezkotasunez erabiltzen direnak:

38. “(Oñ. *Quiltza bi*)” (Mitxelena, 1958:27).

39. “(Oñ. *Pultzaca*)”, (Mitxelena, 1958:27).

40. “Algunos (B-mon-oñ) llaman así al pan de maíz con levadura”, (Azkue, 1969-1:389).

Aguiz: “eçe erorri çidin jarriric egoan silla baterean ain aguiz eçe Silvia ysasi ez ballaco ez çatean miracuru an yla” (6); “ezpata bategaz salvageaen arteti sartu çan utra aguiz emuten leustela bere ezpata çorroçagaz” (14v). Esanahiaren aldetik desberdintzen da, ageri den erabilera bietan ezpaita adverbio indargarriarena (‘oso’ bezala, alegia) beste hizkeratan bezala, moduzkoarena (‘gogorki’, ‘bortizki’) baizik.

Ançitu: “forma onetan berva neguion ez jat ançitu bervaric” (19v). Euskalki guzietan hitza bera da, forma desberdinxeak hartzen baditu ere batetik bestera, bilakabide fonetikoak erraz azaltzen dituenak. Baina eskuizkribuan agertzen zaigun forma egungo goi-nafarrera eta Iparraldeko formekin lotuago agertzen da ezen ez bizkaierazkoarekin. Beraz, forma honen erabilera indartu baizik ez du egiten ezaguna dena, iraganean euskalkiak elkarren artean hurbilago zeudela, alegia.

Bacoch: “çu nundi çabilz amoradua bacoch desconsoladuric” (44). *Bacoch* hitzak «bakar» esan nahi du eskuizkribuko kasu denetan, nahiz adjektibo nahiz adverbio bezala, eta ez «bat bedera» edo horren antzekorik. RS-en hitz bera ageri da, baina esanahia, aldiz, ez da bera: “Eun savel bateco ta bacocho bere gogoco” / “Ciento de un vientre y cada uno de su mente” (381). Behe-nafarreraz eta zubereraz “bakar” adierazteko erabiltzen da, baina baita «bat bedera»rako ere. Leizarragak erabiltzen du «bakar» esanahiaz soilik⁴¹. Nolanahi ere, *bakar* askoz maizago darabil, bien artean ez dagoelarik bereizketa nabarmenik, baina azterketa zehatzago batek erakutsiko luke, alde batetik, *bakar*-ek bestearen baliakizun guztiak betetzen dituela eta harenean ageri ez diren beste batzuk ere bai. Bestalde, formaren aldetik, Lazarragaren erabilera, idazkeraz eta ahoskeraz, bizkaieraz erabiltzen den forma bera da, lapurteraz eta behe-nafarreraz ere dokumentatzen dena, hala nola Axularrengan.

Ysasi: “eçe erorri çidin jarriric egoan silla baterean ain aguiz eçe Silvia ysasi ez ballaco ez çatean miracuru an yla” (6). Kasu bakarra da testu osoan, baina esaldiak ez du aitzakiarik, egokia eta jatorra dirudi edozein aldetatik: esanahia aski garbi ageri da eta eraikuntza sintaktikoak geroago dokumentatuko den erabileraren jatorrasuna oinarritzen du bikain, datiboa aditzaren erabileran agertzea aski duelako: “Silvia ysasi ez ballaco” (hari, Silverori, alegia). Ahoskeraz bi <s>ak mihipunta-hobietako afrikariak dira. Oñatin, beranduago bada ere, “itxatsi” eta “itxatxi” dokumentatzen dira⁴².

Soña: “dichoso beguiac dichoso oñac / dichoso burua dichoso soñac” (39v). «Sorbalda», «bizkar» esanahiarekin ziurrenez, erabilera bakarra baita. Hizkera aunitzetan dokumentatzen denez, ez da hemen bereziki esanguratsua gertatzen, baina aipa daiteke, esanahi horrekin ez delako gaur egun erabiltzen bizkaieraz.

41. “En esta acepción (única en Leizarraga), su uso va disminuyendo con el tiempo...”, OEH, III, (Mitxelena, 1987:766).

42. “Entre las formas con palatal, *itxatsi* es la más abundante y se documenta en *msOÑ*, *Crlc*, en ambos junto a *itxatxi*” OEH, IX, (Mitxelena, 1996:670).

Franco: “yçerrdiorio franco bear dau oy bere bular artean” (42).

Gaztazaro: “ez gueiago gazta çaroau ain lasterr ançietea” (42). Forma hau bizkaierazko literaturan XIX-XX. mendeetan dokumentatzen da (Arrese Beitia, Lauaxeta); herri erabileran, aldiz, «gaztezero» batzen du Azkuek bere hiztegian Arratia bailararako⁴³.

Ardura: “Oy eseguino lagun deyçut / badoçu borondateric / esquerric asco jentil honbrea / ez dot ardura lagunic” (21v). «Maiz» esanahiarekin goi-nafarrerako eta Iparraldeko euskalkietako tradizioan sartzen den forma hau eskuizkribu honetan ere dokumentatzen da, goian aipatzen den beste esaldi mota berdintsuan, eta hirugarren batean ere balio bera duela dirudi: “azaiteau galdu lerait / ardura usaçaqueac” (42v): «maiz usatzakeak», «maiz usatu gabeak», alegia. Bestalde, «arrangura» esanahiarekin ere beste bitan erabiltzen da.

Sarri: “Aitac ezcondu ezpanaguy / neurau ni ezconduco nax sarri” (36). «Berehala», «laister» esanahiarekin goi-nafarreraz eta Iparraldeko hizkeretan erabilia da. Hemen ere esanahi bera du; dena den, poema batean estribilo bezala sartua dago, herri-literaturatik jasotako itxura osoa duelarik. Beste hiru aldiz ere ageri da, baina hauetan bizkaierazko eta gipuzkerazko esanahi aruntaz: «maiz», alegia..

Anech: “bioçau jo deustaçu anech flechaz” (31r).

Chaola: “çerren biurr ez neçan chaolara” (39v).

Ausi: “çerren deustaçu / oy ausi mandamentuac” (45). *Ausi* iraganean bizkaieraz eta baita gipuzkeraz ere forma arrunta izan arren, hemen behin agertzen da, baina bada bigarren adibide bat non hitz bera dela dirudien: “bada bere Marteren mandatariac aguindu eustena ez ausaiteren eçin eçer eguin even” (14v); “ez austearren” esango balu bezala, horrela hartzen due-lako esanahi egokia eta *ausaitea* onargarria delako beste forma berdintsu ugari bezala: *jaiaite*, *arçaitte*, *sarçaitte*, *ysaite*. *Apurtu* ez da ageri behin ere.

Egun: «gaur», «gaur egun» esanahiaz ez da orain hain erabilia hegoaldean, baina zeharo arrunta omen zen XVIII. mendera arte⁴⁴: “Ene bioz penadua / egun gaxqui curadua / egun ascotan bearco doçu / çeure aldean medicua” (6v); “Salbatierra / egun ey dago tristeric” (48); “Egun baçaoç libertadeaz / oy noxbayt galduco doçu” (22v).

Bide: “bada bere dichaz desdichaduan / jaio bide ninçan ayn tenporatan” (39); “gauça sacona bide da yçan / ysaso ondar baguea” (42v).

43. (Azkue, 1969-1:338).

44. Ikus (Lakarra, 1984-2:136-137). Lazarragaren testigantzak asko aurreratzen du erabilera horren lekukotasuna.

Solas: “ene laztana solas daigun / gueurcheoc bioc bacarric” (21). Adibide bakarra da eskuizkribuan, baina testuinguruak argitzen du esanahia: “Lecu onean topadu gara / Jaun çerucoac guraric / oy apeadu bear neuque / badoçu borondateric / ene laztana solas daigun / gueurcheoc bioc bacarric / Jaun çerucoaen amorearren / jauna çaoça gueldiric / basoan neurau bacarric nago / çebeguit agravioric”. Esanahi hori ongi lotzen da bizkaieraz izan duenarekin («jolas», «jostaketa») edo, gutxienez, hori ulertzen du emakumeak, gizakumea elkarrekin bakardadean hitz egiteko duten aukeraz ari dela dirudien arren.

Guidal: “chacurrcho bat an eldu çan / uraldeti eyzquetan / guiçon onac dei eguinda / lotu eben guidaletan”(43v)⁴⁵.

Badira hitz gehiago ere: *chitez*: “ya ja casy chitez yl naiz”; *aragui*: “cape-laetan darabil-tela /beti aragui errea / araguionen jaateraco / asecabazco salsea”; *berrçerea*: “conclusioz çerr çera berrçerea”; *goitixeago*: “goitixeago ecusi neben / beste alderuz eguinic / donçella flordelisaric asco / guztiaç gorriz jançiric”. Ez dago denak komentatu beharrik. Ikusiak aski dira eskuizkribu honetan jasotzen den hizkerak garai bateko euskarak zuen batasun handiagoa aditzera ematen duela onartzeko eta, bide batez, lehen aipatu den hizkeren arteko pasa-mugak asko leuntzeko.

3.5. Ondorioak

Testuak beste hitz eta kasu asko ditu egiaz kontutan izateko eta iruzkin-garriak direnak. Baina ikusi direnekin zenbait ondorio diatopiko atera ahal daitezke.

Lehenengo eta behin, lexiko mailan, hizkera honen oinarria bizkaieran kokatu behar dela esan daiteke. Ze bizkaiera mota, ordea? Ikuspuntu diakronikotik, XVI. mendeko bizkaierak zuen hedadura kontutan izanik, aldakien aberastasuna handiagoa izanen zen. Bestalde, mendebaldeko ekialdean kokatuak zeuden hizkerek, beste batzuekin mugakide zirenez, zenbait berezitasun izaten zituzten. Eta, azkenik, bizkaiera bera beste euskalkietatik egun baino hurbilago zegoen. Arrazoi hauek aurrean eduki behar dira garai hartako hizkerak aztertzean. Lazarragaren hizkerak ere hitz aunitz darabiltza bizkaieraren barnean nortasun propioa esleitzen diotenak. Alde batetik, Deba Goieneko bizkaieratik hurbilago dagoela esan daiteke, hainbat hitz, bizkaierakoak izanik ere, lurralde horretan bereziki kokatzen baitira. Bestalde, mugako hizkera denik ere zail da ukatzen. Hain solte eta hain aisa darabiltza inguruko hizkeretan bizkaieran baino arruntagoak diren hainbeste hitz, ezen garbi ageri dute egilearentzat ere hagitx normalak zirela, askotan forma horietarik bizkaierazkoetara igarri gabe igarotzen delarik. Eta amaitzeko, badu beste ezaugarri bat hemen jaso ez dena, gaztelerazko hitzen erabilera alegia, bai ugaritasunagatik bai hitz eta esamoldeak hartzeko erraztasunagatik. Edonola ere, horrek azterketa berezia beharko luke.

45. Landuchioren hiztegian ere ageri da: “çanco çancoa, (B?) guidalá”; “pierna guidala”; (Mitxelena, 1958: 93 eta 172).

BIBLIOGRAFIA

- ALTZIBAR, X. (1994): "Bizkaierazko idazle klasikoak", *Bizkaiko euskera, bizkaiera?, II Jardunaldiak*, Bilbao, 61-69.
- AZKUE, R. M. de (1969-1): *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, (1905-6ko edizio facsimila).
- , (1969-2): *Morfología vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao (1923-ko edizio faksimila).
- COVARRUBIAS, Sebastián (1943): *Tesoro de la lengua castellana o española*, Martín de Riquer-en edizioa, S.A. Horta, Barcelona.
- ISASI, C. (1995): "il-ill en documentos vizcaínos medievales alternancia gráfica o palatalización vasca?", *ASJU XXIX*, 651-659.
- IZAGIRRE, K. (1970): *El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes*, *ASJU*ren gehigarriak 7, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. (L. Villasante arg.).
- KNÖRR, H.; ZUAZO, K. (Arg.): (1998), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta Testuak. El euskara alavés. Estudios y Textos*, Eusko Legebiltzarra, Vitoria-Gasteiz.
- LAKARRA, J. (1983): «Oharra zenbait arkaismoz», *ASJU XVII*, 41-68.
- , (1984-2): «Bertso bizkaitarrak», *ASJU XVIII-2*, 116-123.
- , (1986): «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU XX-3*, 639-681.
- , (1997): *Refranes y sentencias (1596)*. Edizio Kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbao.
- LARRAMENDI, M. (1853): *Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latín*, Pío Zuaza, San Sebastián, (2. arg.).
- MITXELENA, K. (1958): *Dictionarium linguae cantabricae*, Manuel Agud eta K. Mitxelenaren edizioa, Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián. Orain ere in Knörr eta Zuazo Ed. (1988, 23-48).
- , (1964): *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid.
- , (1977): *Fonética histórica vasca*, Diputación Foral de Guipúzcoa, San Sebastián, (2. arg.).
- , (1987-2004...): OEH. *Diccionario general vasco. Orotariko euskal hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbao.
- OEH: Ikus, Mitxelena (1987-2004...).
- PAGOLA, R.M. (1998): «Fonemak eta grafemak: bokal sudurkarien inguruan», *Studia Philologica in Honorem Alfonso Irigoien*, Universidad de Deusto, Bilbao, 163-173.
- , (2002): "Bilboko euskara XVII. mendean: Micoletaren euskaraz ikasteko metodoa", *Bilboren 700. urteurrena. Hizkuntza gunea Sinposioa*, Bilbao, 201-218.
- PEREZ DE LAZARRAGA, Joan (2004): eskuizkribuaren edizio elektronikoa CD-Romean, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , (2004): Iñigo Landa eskuizkribuaren transkripzioa www.armiarma.com/klasikoak/lazarraga/.
- RETANA (1976): *Diccionario Retana de Autoridades de la lengua vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

- SARASOLA, I. (1983): «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», *ASJU* XVII, 69-212.
- URQUIZU, Patri (2004), *Dianea eta koplak. Joan Perez de Lazarraga, Madrid 1567*, Erein, Donostia.
- ZELAIETA, A. (1988): «Rafael Micoleta Çamudio: *Modo breve de aprender la lengua vizcaina*», *Hizkuntza eta Literatura* 7, Eusko Ikaskuntza, 133-214.
- ZUAZO, K. (1998): «Arabako Euskara», in Knörr eta Zuazo ed. (1988), 127-189.